# Desalanbratzera, Desalanbratzera!

*BEHAR bada gaizki ohituta egongo ginen, eta segurtzat ematen genuen mendira joatea eskubide naturala zela. Mendizaletasunaren mistikak, mendia askatasunaren erreinuarekin parekatzen du. Gorantz zoazen heinean, gizartearen trabetatik urruntzen zara. Zu zeu eta natura zara, eta adiskidetasun eta bakardadearekin geratzen zara bakarrik. Ahaleginaren balioa da. Tontorraren aurrekoa. Erlijiozaleak Jaungoikoarengandik hurbilago sentitzen dira. Azkenean, mendira igoteko ekuazioari ebazpidea emateko fisikoak diren eragozpenak soilik onartzen ditugu.*

*Benetan zirikatzen gaituzte mendira igoten uzten ez bagaituzte edo, igoteko ahalegina egin ondoren, tontorrera heltzen uzten ez bagaituzte. Eta hau gertatzen zen mendi batzutan eta arrazoi desberdinengatik. Adibide batzuk aipatuko ditut, eta horretarako urrundik hasiko naiz. Batzutan, arrazoiak ekonomikoak izaten dira, Himalaian baimenak lortzeko ordaindu behar izaten diren tarifak kasu. Beste batzutan, mendiak gerrateak daudeneko lurraldeetan kokaturik egoteagatik datoz eragozpenak (adibidez, kurdo eta armeniarren lurraldeetan dagoen Ararat mendia). Bestaldetik, mendiak Parke Naturaletan barne gelditzeak ere sortzen ditu antzerako arazoak (Teide). Hortik aparte, ba daude egon zonalde militarra direlako ukiezinak diren mendiak (Gibraltarreko Harkaitza, Edurretakoa Las Palmasen, Puig Handia Balear irletan, Aitana Alicanten). Arrazoi horrexegatik dago debekaturik Ehun Mendien Katalogoan Iruneako San Kristobal/ Ezkaba mendia, eta baita Bizkaia inguruan dauden Las Motas eta Picón Blanco mendiak ere.*

*Azken finean, aparteko kasuak ziren eta ohitu egin ginen beraiekin bizitzera. Baina, orain dela gutxi joku-arauak nabariki aldatzen ari den jazoera bat gertatzen hasi da. Alanbraden ugalketari ari natzaio, zeinak lurraldeen jabego-eskubideak erabiltzeagatik anizten ari bait dira, bideak itxiz, lekune zabal handiak mugatuz eta, batzutan, tontorrerako ailegabidea eragotziz. Honen guztionen adibide paradigmatikoa Toledoko Mendietako latifundioetan jarritako maila zinegetiko beldurgarriek osotzen duten bilbapen exhaustiboa da, zeinak Ciudad Real eta Toledo probintziek dituzten tontor handienetarako igoera (Amor eta Rocigalgo, hurrenez hurren) oso zaila eta arriskutsua izan dadin eragiten duen.*

*Gure mendi hurbiletan ere gertakizun hau alarmagarria bihurtzen ari da. Orain dela urtebete bat, Pyrenaicaren irakurle batek oso ondo azaltzen zuen arazoa gutun batean (179. Alean), zeinean Bizkaiko bira osotzen duen GR 123 bidezidorraren mendebaldeko zonaldean alanbradak direla eta mozturik geratu ziren bidezidor historikoekiko neurrigabekeria salatzen bait zuen. Egoera honen inplikazio juridikoak estudiatzeko eta kexazko jarrera aktibo baterako aholku egokiak eskeintzeko, Federakundean lan-talde bat eratzea eskatzen zuen.*

*Salaketak gero eta gehiagotan errepikatzen ari dira, gero eta grabeagoak diren kasuen aurrean. Nafarroako ekialdeko mugetan kokatuta dagoen Peña mendiaren tontorrerako ailegabidea eragozten duen hesiarena izan da azkenengoetarikoa, aldizkariaren aurreko alean argitaratua. Oraingo ale honetan gutun bat argitaratzen da, zeinean -Larrañeko udalaren eritziz, mendizaletasuna ehiztariekin eta ehizarekin elkartezina denez- Orirako Zuberoa aldetiko ailegabidea debekatu zitzaioneko familia baten haserrea azaltzen bait da.*

*Gaur egun edozein mendi ezagunetan ikus dezakezu jabego-eskubideak bide zaharren gainetik egin duela, bide-zortasunen gainetik, ibilbide handi eta txikien gainetik. Naturguneen gehiegizko gizatartzeak eta mendialdeen kontrolgabeko pribatizazioak pikutara bidali dezakete mendizaletasuna, eta baita gatazka pertsonalak, gizartezkoak eta ekologikoak sorterazi ere. Azkenean, Defentsa-Ministeritzaren 300000 hektarea basoen zati garrantzitsu baten desamortizazio-proiektua burutzen bada, bere ondorioak ingurugiro-orekarako hondagarriak izan daitezke.*

# ¡A desalambrar, a desalambrar!

QUIZA es que estábamos mal acostumbrados y dábamos por supuesto que eso de subir al monte era una especie de derecho natural. La mística del montañismo identifica la montaña con el reino de la libertad. Según asciendes te vas alejando de las trabas de la sociedad. Eres tú y la naturaleza y te quedas a solas con la amistad y la solidaridad. Es el valor del esfuerzo. El premio de la cumbre. Los religiosos se reconocen más cerca de Dios. Al final no aceptamos más problemas que los puramente físicos para resolver la ecuación de subir una montaña.

Nos molesta mucho que no nos dejen subir al monte o que, después de haber hecho el esfuerzo de subir, no nos dejen llegar a la cumbre. Y esto ocurría en algunos montes y por distintas razones. Mencionaré algunos ejemplos, empezando de lejos. Unas veces las razones son económicas, como las altas tarifas que hay que pagar para conseguir permisos en el Himalaya. Otras veces la limitación se debe a estar situados en zona de conflicto armado (el Ararat, en tierras de kurdos y armenios). Otras, por su protección al incluirse en Parques Nacionales (Teide). Hay "techos" intocables por ser zona militar (El Peñón en Gibraltar, el Pozo de las Nieves en Las Palmas, el Puig Mayor en Baleares, el Aitana en Alicante). Por esa razón está vedado en el Catálogo de los Cien Montes el San Cristóbal/Ezkaba en Iruñea y hay problemas en montes añejos a Bizkaia como Las Motas o el Picón Blanco.

Al fin y al cabo eran casos aislados, con los que convivíamos. Pero recientemente se está prodigando un fenómeno que está cambiando a grandes pasos las reglas de juego. Se trata de la proliferación de alambradas que aparecen en ejercicio del derecho de propiedad de los terrenos, cortando caminos, acotando grandes espacios y, a veces, impidiendo el acceso a la cumbre. El caso paradigmático es el exhaustivo entramado de las siniestras mallas cinegéticas en los latifundios de los Montes de Toledo, que hacen extremadamente difícil y peligroso el ascenso a los techos de Ciudad Real (Amor) y Toledo (Rocigalgo).

También entre nuestros montes cercanos el fenómeno es alarmante. Hace ahora un año lo explicaba muy bien un lector de Pyrenaica en una carta (n.º 179) en que denunciaba el abuso de caminos históricos cortados por alambradas en la zona occidental del GR 123, el sendero de la vuelta a Bizkaia. Proponía la constitución en la Federación de un grupo de trabajo que estudiase las implicaciones jurídicas de esta situación y facilitase el oportuno asesoramiento para una postura activa de reclamación.

Se repiten las denuncias ante casos cada vez más repetidos y más graves. En el número anterior de la revista era el vallado que ha aparecido imposibilitando el paso a la cima del Peña en el límite oeste de Nafarroa. Y en este mismo número se reproduce la carta que expresa la indignación de la familia a la que se impidió el acceso al Ori por la vertiente de Zuberoa, porque según el Ayuntamiento de Larrañe el montañismo es incompatible con la caza y los cazadores.

Hoy en día te puedes encontrar en cualquier monte conocido con que el derecho de propiedad ha prevalecido sobre los viejos caminos, sobre las servidumbres de paso, sobre los senderos de pequeño y grande recorrido. La humanización excesiva de los espacios naturales y la privatización incontrolada en zonas de montaña, pueden dar al traste con el montañismo y generar conflictos no sólo personales, sino sociales y sobre todo ecológicos. Si al final se lleva a cabo el proyecto de desamortizar una parte importante de las 300000 hectareas de bosques del Ministerio de Defensa español, sus consecuencias sobre el equilibrio medioambiental pueden ser catastróficas.

**Txomin Uriarte**